

JUAN MARTÍNEZ de RECALDE 1538-1588

Euskal itsasgizonek Armadaren ekintza gogoangarrietan parte hartu dute beti, eta baita porrot handienetan ere balentria erakutsiz. Juan Martínez Recalde almirantea *Garaiezinaren gizona* da, zalantzarik gabe. Bilbon jaio zen eta itsas zaletasunak bultzaturik gaztetatik itsasoratu zen Bizkaiko Eskuadraren. Geroxeago Indiatako hiru ontzidiak babesten ibili zen eta garai horretan ospe handia lortu zuen Madeira irla inguruan urrez kargaturiko galeoia berreskuratu zuenean. Lortutako garaipenak zirela eta Laredoko Ontzidiaren Aginte Nagusia eskuratu zuen. Bere lagun eta adiskide Miguel Okendoren patuarekin gertatu zen bezala, bere bizitzaren patua Alvaro Bazan almirantearen irudi indartsuari lotuta egon zen, eta horren agintepean egon zen 1582 eta 1583 bitartean Azoreetako kanpainetan. Horren ondorioz Britainiako handinahiari aurre egiteko Irlandako espedizioaren agintea eman zitzaion eta hainbat soldadu lurrian uztea lortu zuen. 1587. urtea zen eta Ingalaterrako inbasioa prestatzen hasia zen. Izan ere, operazio horietarako esperientziarik gabeko Medina-Sidoniako dukea izendatu zutenean inbasioko ontzidiaren almirante kargua eskuratu zuen. *Itsas Armada Garaiezinaren* muinaren agintea hartu zuen, alegia. Hala ere, prestatze lan materialak bere esku geratu baziren ere, ezin izan zizkien bere erabakiei eutsi Medina-Sidoniaren aurrean eta nahi eta nahi ez, laguntza taktikorik gabeko enfrontamendu latzetan murgilduta ikusi zuen bere burua. Izan ere, 1588ko uztailean ingelesekin izandako lehenengo enfrontamenduetan bakar bakarrik geratu zen erretagoardian eta kosta ahala kosta aurre egin behar izan zien etsaiaren ontziei. Bizirik eta libre irten bazen ere soldadu asko galdu zituen eta ontzietan izandako kalteen ondorioz ontzi asko ezin izan ziren gehiago erabili. Ingelesen trebetasunak, eguraldi baldintza txarrek eta agintea zeukan pertsonaren ezjakintasunak amaiera tristera eraman zuten armada bera. Jakina, Medina-Sidonia ez zen Alvaro Bazan bezain estratega ona. Eskuadra sakabanatu arte Rekaldek tinko jarraitu zuen *Itsas Armada Garaiezina* Ingalaterrako kostan burutzen ari zen erasoan. Etorreran lehenengoz Irlandan gelditu zen, eta ondoren Coruñaiko portuan sartu zen, zauriturik eta sukarrak jota. Portu horretan geratu ziren ontzidia eta bere bizitza, bertan hil baitzen heldu eta egun batzuk geroago, nekatuta eta saminez beterik.

Los marinos vascos han estado siempre presentes en algunas de las mayores hazañas de la Armada, pero también y con gran valor en sus peores derrotas. El almirante Juan Martínez de Recalde es sin ambages *el hombre de la Invencible*. Nacido en Bilbao, su vocación marinera le hizo navegar desde muy joven en la Escuadra de Vizcaya para más tarde escoltar tres flotas de Indias, logrando en este período gran fama al obtener el rescate de un galeón cargado de oro en la isla Madera. Por sus méritos, recibiría el ya mentado anteriormente *mando supremo de la Flota de Laredo*. Al igual que Miguel de Oquendo, del que era amigo y compañero, la forja del destino de Recalde estuvo pronto unida a la poderosa figura del almirante Álvaro de Bazán, siendo acogido bajo su mando durante las expediciones a las Islas Terceras de 1582 y 1583. Como consecuencia, le fue entregada la autoridad de la expedición a Irlanda frente a las ambiciones británicas, logrando un importante desembarco de hombres. Corría el año de 1587 y se estaba larvando la invasión de Inglaterra. De hecho, tras el nombramiento supremo del inexperto duque de Medina-Sidonia para aquellas operaciones, Martínez de Recalde asumió el rango de almirante de la Flota de invasión, el corazón de *la Invencible*. Sin embargo, aunque la responsabilidad recayó en lo material sobre él, no pudo hacer valer la mayoría de sus decisiones ante Medina-Sidonia, viéndose arrastrado a combates muy difíciles sin apoyo táctico. De hecho, en la refriega inicial con los ingleses de julio de 1588, hallándose en la retaguardia de la Flota, quedó aislado y no tuvo más remedio que batirse con denuedo contra varios navíos enemigos. Salió de la acción vivo y sin ser capturado, pero le costó perder numerosos hombres y la casi inutilidad de sus naves. La habilidad británica, las malas condiciones atmosféricas y las pocas aptitudes de quien poseía la potestad le acabaron llevando al triste final. Evidentemente, Medina-Sidonia no era el gran estratega Álvaro de Bazán. Hasta la dispersión de la Escuadra, Recalde se mantuvo firme a lo largo de toda la campaña de *la Invencible* sobre las costas de Inglaterra. Durante la singladura última recaló primero en Irlanda, dirigiéndose más tarde a La Coruña, herido y con graves fiebres. En este puerto fondeó su flota y su propia vida, pues falleció a los pocos días de arribar, agotado y lleno de amargura.

Basque seamen have always been present at some of the Navy's greatest exploits and, also, bravely at some of its worst defeats. Admiral Juan Martínez de Recalde is undoubtedly *the main figure of the Spanish Armada*. Born in Bilbao, his maritime vocation led him to sea at a very young age in the Biscay Squadron. Later, after escorting three fleets to the Indies, he became famous by rescuing a galleon loaded with gold on Madera Island. He was rewarded for his merits with the command of the *Laredo Fleet*. As was the case with Miguel de Oquendo, a friend and colleague, Recalde's destiny was soon linked to the powerful figure of Admiral Álvaro de Bazán, who took him under his command during the expeditions to the Terceras Islands in 1582 and 1583. Eventually, he was given command of the expedition to Ireland to counter British ambitions and managed to land a significant number of men. It was now 1587 and the invasion of England was being planned. In fact, after the inexperienced Duke of Medina-Sidonia was appointed to command the operations, Martínez de Recalde was promoted to the rank of Admiral of the invasion Fleet, the heart of the *Spanish Armada*. However, although he was materially responsible, he was unable to obtain the approval for most of his decisions from Medina-Sidonia and was forced into difficult battles without tactical support. In fact, during the initial skirmish with the English in July 1588, while he was with the rear-guard of the fleet, he was isolated and had to fight valiantly against several enemy ships. He survived the action and avoided being captured but it cost him many men and extensive damage to his ships. The skill of the British, the bad weather and the limited skill of the command led him to his sad end. Obviously, Medina-Sidonia was not an excellent strategist like Álvaro de Bazán. Until the Fleet dispersed, Recalde remained firm throughout the entire campaign fought by the *Spanish Armada* along the coasts of England. During the final stage of the voyage, he first put into port in Ireland and later set course for Corunna, wounded and with a high fever. His squadron anchored at this port, where exhausted and bitter he died a few days later.

JUAN MARTINEZ de RECALDE